


**ARRASATE**  
natura bideak rutas naturales



ARRASATEKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGON


# ARRASATEKO BIRA














## ARRASATEKO BIRA

Ibilbide zirkular luze honek, landa auzoak lotuz, bira ematen dio Arrasateri. Irteten du San Andrestik (Etxaluze), eta zeharkatzen ditu Bedoña, Musakola, Meatzerreka, Udala, Garagartza eta Gesalibar auzoak; eta itzultzen da berriro ere irteera lekura. Auzoek gain, aukera dago koba ikusgarri bat ikusteko.



MIDE

Ibilbidearen maila teknikoa eta fisikoa neurtzeko metodoa. Zailtasun maila da 1etik 5era, txikienetik handienara.	<b>Denbora</b>		<b>9h 45'</b>
	<b>Igoera desnibela</b>		<b>1379 m</b>
	<b>Jaitsiera desnibela</b>		<b>1379 m</b>
	<b>Distantzia horizontala</b>		<b>27,6 km</b>
	<b>Ibilbide mota</b>		<b>Zirkularra</b>
	<b>Ingurune naturalaren gogortasuna</b>		<b>1</b>
	<b>Orientazioa ibilbidean</b>		<b>2</b>
	<b>Zailtasuna desplazamenduan</b>		<b>2</b>
	<b>Egin beharreko esfortzua</b>		<b>4</b>



MAPA



IBILBIDEAREN AZALPENAK

- **(A) Etxaluze.** Ibilbidea hasten da Etxaluzen, PR-Gi 106 Erromesbidearen panel informatiboaren aurrean. Leku honetatik bideak jarraitzen du Etxaluze atzetik Bedoñarako errepide-raino (GI 3554). Gurutzatzen du errepidea eta jarraitzen du bidegorritik; 300 metrora hartzen du ezkererantz. Bidea pasatzen da Etxaburu baserriaren aurretik, eta gero pinudian gora egiten du Urialde baserriraino. Bidegurutzean ezkererantz eta behera, Bedoña auzuneraino.
- **(B) Bedoña auzoa.** Bidea pasatzen da Errastiko jatetxearen aurretik; hasieran hartzen du Kurtzetxikiranzko norabidea, eta gero Bidasoro baserri ondotik zuzen Artazubiaga baserriraino. Han hartzen du ezkererantz eta segitzen du aurrera Magalbe baserriaren aztarnen aurretik. Hasierako bidea bidexka bihurtuko da laster, eta gero lurrezko pista. Haritza baserriaren ondotik hormigoizko pistak eramaten du Asuela bidegurutzeraino.
- **(C) Asuela.** Eskumara egiten du eta gorantz jarraitzen du Bakueko bidegurutzeraino. Hemen egiten du ezkererantz, lehenengo pistan, eta segitzen du aurrera pista nagusitik. Aurrerago, bidea doa ezkerre, eta hortik behera. Bide nagusia bukatzen denean, eskumara bidexkatik pistara; eta hor ezkerre. Gero, igarotzen da autopistaren gaineko zubitik, eta behera doa, bidegorriraino. Hemendik Musakolara, kiroldegiraino.

▪ **(D) Musakola auzoa.** Aurrerago bidea doa eskaieran gora, eskumarantz. Gero eskumara eta ondoren hormigoizko pistatik, ezkerrera doana, Antoniñako mineral garbitokiraino. Hemen, hormigoizko pista utzita, bideak hartzen du ezkerrera; jarraitzen du gorantz pista nagusia utzi barik. Sigi-saga segitzen du gora. Bidegurutzean hartzen du ezkerrera, eta berriro ere pista nagusira irtendakoan, ezkerrerantz eta beherantz. Ondoren 550 metro eginda hartzen du eskumara doan pista Etxaldebarri baserriraino. Hormigoizko pistatik jarraitzen du Meatz Erreka elkartera.

▪ **(E) Meatz Erreka elkartea.** Elkarte aurretik Santutxo bidegurutzeraino eta hemen errepidea zeharkatuz Salturri baserriraino. Baserriaren ezkerretik jarraitzen du bidegurutzeraino eta hemen eskumarantz eta gorantz Uriarte (Uxarte) baserriko txabolara, eta hor egiten du eskumara doan bidexkatik, Udalara.

▪ **(F) Udala auzoa.** Errepidean behera egiten du. Laster hartzen du eskuineko pista, iturri eta labaderora, haiek atzean utzi San Esteban elizaraino. Hormigoizko pistatik, aurrera eta ondoren eskumarantz doa bidexkan behera, artaditik, pista nagusi batekin elkartu arte. Hau gurutzatu eta behera doan bidea jarraitzen du Garagartzara iritsi arte.


▪ **(G) Garagartza auzoa.** Aurrerago eskumara, Lezetxiki eta Kobateko harrobirantz. Harrobira iristean aurrera doa. Aurrerago, Kobaundi pasata, bidegurutzean ezkerrera, Zabolain sagardotegirantz. Aurrerago Parraia baserrian ezkerrera berriro, Gesalibarreraino.

▪ **(H) Gesalibar auzoa.** Santa Ageda eliza albotik gora pistatik hormigoizko bidearekin elkartu arte. Hormigoizko pista segitzen du Bastergaingainekoa baserriraino. Hemen eskumara egiten du mendi pistan gora Naparrenako iturriraino.

▪ **(I) Naparrena.** Bideak ezkerrera egiten du. Handik segitzen du aurrera 2,5 km inguru pista nagusia utzi barik. Olandiogain baserriraino. Igarotzen du langa bat eta segitzen du Lauaxeta etxeraino. Behean egiten du eskumara, errepidea gurutzatu, eta berriro irteera puntura.



▪ **Santa Eulalia eliza:** Estilo errenazentistako eliza honetan leihoetan elementu erromanikoak antzematen dira mendebaldeko fatxadan. Abenduaren 10ean ospatzen da Santa Eulalia eguna. Gertu dago Koldobika Jauregiren Dragoiburu eskultura Arrasate zaintzen.



▪ **Antoniñako mineral garbitokia:** minerala, Meatzerreka inguruko meatzeetatik aterata, airetiko kable bidez ekartzen zen honaino, hemen txikitu eta bahetzeko. Gero, tromel batean garbitzen zen, lurrak, buztinak eta materia organikoa kentzeko. Prozesu horren ostean, kamioietan kargatu eta Bergarako labe garaietara eramaten zen bereziki. Balio gabeko materiala pilatzen zen errekaen ibilguan, presaren ateak ireki eta ebakuatu arte.

2



▪ **Galarragako koba:** Isabel II erreginaren bisita zela eta, marmolezko oroitarri bat jarri zen haren omenez, eta irakurri daiteke: "Isabel II y su augusta madre Doña María Cristina, 21 de agosto de 1845. La Serma. Infanta Doña María Luisa Fernanda, 28 de agosto de 1845". Oroitarri hori kobaren barrenean dago.



▪ **Salturri baserria:** etxe honetan jaio zen Juan Bautista de Barrutia y Pérez de Umendia (XVII. mendean), Armadako kapitain adoretsua Cartagena de Indiasen. Erdi Aroko egitura mantentzen duen baserriak leiho eta arku zorrotzak ditu. Harrizko eraikin sendoa bizi zen burdin hobien ugazaba.

4



▪ **San Esteban eliza:** sabaia eraiki zuen Juan Bautista de Salturri hargin maisuak 1609an, eta aldare nagusia, be-rriz, Antonio Antiak eta Manuel Olaranek 1763an. Aurrealde erromanikoa du. Bertako jaiak abuztuaren hasieran ospatzen dira.

3



▪ **Kobaundi (Garagartza):** kobazuloa sortu zen higa-dura bidez, urak harkaitzean egina milaka urtean. Kobatik erreka bat igarotzen da, urak harkaitza zulatu baitu alde batetik bestera.

11



▪ **Santa Ageda bainuetxea:** garai batean inguru hartan zeuden uretzak zirela-eta oso ezaguna zen. Ilustrazioaren jarrera izan zen higieñaren eta osasunaren aldekoa, eta horren eraginez 1825. urtean eraiki zen Santa Ageda bainuetxea. Antonio Cánovas del Castillo gobernu presidentea anarkista batek hil izanak gainbeheran jarri zuen bainuetxearen ospea 1897an. Berrikitzea kudeatu zuten Hospitalarias de San Juan de Dios ordenak eta Hermanas del Sagrado Corazón ordenak, eta orduan eman zitzaion gaur egun duen gaixoetxe funtzioa.

12



▪ **Santa Ageda eliza:** errepide ondoan, gaixoetxeko lorategia inguratzen duena, Santa Ageda eliza dago, XVI. mendearen erdialdean eraikia. Eliza horretan ikusi daiteke erretaula erromanista interesgarri bat.



- GR-121 Bizkar bidea (Gipuzkoako bira)
- PR-Gi 106 Arrasate-Arantzazu. Erromesbidea
- PR-Gi 91 Erregebidea-Bedoña
- PR-Gi 205 Anporretako bira, burdinaren bidea
- PR-Gi 206 Murugain, dragoiaren bidetik
- SLGi 42 Kurtzetxikiko bira
- Herrigunea-Bedoña
- Herrigunea-Udala
- Herrigunea-Meatzerreka
- Herrigunea-Garagartza-Gesalibar
- Arrasate-Elorrio Erregebidea